

Juanito Oiarzabal ♦ GOI MAILAKO MENDIZALEA



«Hau ez da maldarik gabeko zelaia izan»

Gutxi izango dira ja Juanito Oiarzabal ezagutzen ez dutenak. Ez dira asko izango mendizale arabarrak egin duen balentriren berririk ez dutenak. Hamalau zortzimilakoak. Erraz esaten da; nekez egin. Bidean nekeak, oinazeak, lagunak eta lagunminak geratu zaizkio Juanitori. Bera ere galbidearen atarian izan da. Orain proiektu berriak ditu: Everest berriro igo, zazpi kontinenteetako azken bi gailurrak... Halakoxea da Juanito, burugogorra, urduria, mendiaren maitalea. Ez du aldatu nahi gainera.

ANNAPURNA IGO ETA JAITSI ONDOREN amaitu zuen Oiarzabalek bere bizi-tzako helburu nagusia: munduko hamalau zortzimilakoak igotzea. Nekeak, ordea, ez zaizkio amaitu. Gasteizera itzuli zenetik ezin izan du atsedetik hartu. Elkarrizketa honetarako ere tarte bat egin ezinik ibili da. «Madrilen izan nintzen atzo: hainbat komunikabiderekin hitz egin, kontratu batzuk sinatu... Eguerdian Ibarretxe lehendakariarekin hitzordua dut; bihar Espainiako presidente Aznarrekin...», hasi zaigu. Agintariek heroi berriaren alboan erretratatu nahi dute. Oiarzabal ez da oso eroso sentitzen: «Goizean dendarik denda ibili behar dut; horiekin egoteko jakarik ere ez dut eta!».

■ **Kontaidazu azken espedizio honetako anekdotaren bat.**

Igoerari dagokionez, gailurreko merengea dut gogoan. Nik punta-puntaraino igo nahi nuen, baina kideek eragotzi egin zidaten: «Nola igoko haiz bada horra? Merengeak irentsi egingo hau eta!». Bi metrora geratu ginen.

Gainerakoan, oinarritzko kanpamenduan, golfean aritzen ginen. Korear espedizioako kide batek golf makila bat eramane zuen. Hori ikusita, denok jokatu nahi izan genuen, eta horretarako zuloak egin eta banbuzko makilekin banderatzok osatu genituen. Orduak ematen genituen. Beno, nik gutxiago; baina Juanek, Ferranek eta

besteek ia arratsalde osoak eman zituzten zelaian.

■ **Unerik hunkigarrienak gailurra igo zenutenekoa eta hildako lagunminen oroitzapena, ezta?**

Gailurra egin genuenean ez nuen disfrutatzeko astirik izan. Telebistarako grabaketa egin beharra geneukan, kamerak prestatu... Gainera, gailurra oso txikia da; ez da K2 edo Cho Oyu bezain eroso. Benetan disfrutatu nuen unea 3. kanpamendura iritsi eta zakuan bero-bero nengoela izan zen. Orduan ohartu nintzen egindakoaz, hamalau garrena! Orduan dastatu nuen zoriona, orduan hasi nintzen ametsetan.

■ **Oinarritzko kanpamenduan gonbidatu berezia izan zenuten: Maurice Herzog, zortzimilako bat -Annapurna bera gainera- egin zuen lehen gizona. Nolako izan zen esperientzia?**

Hunkigarria izan zen, bereziki Herzogek nola gozatu zuen ikusita. 83 urte ditu, eta duela 50 urte izandako lekura itzuli zen, gloria-tragedia haren ondoren -eskuetako hatz guztiak galdu zituen-. Gizona gailurrari eta glaziarrari so geratu zen. Ez zuen handik mugitu nahi, baina helikopteroa zain zeukan. Orduerdiz egon ginen. Dendara sartu, tea hartu, solasaldi labur bat egin eta izkribu bat eman zidan gailurrean jar genezan - «Orain, 50 urte geroago, egia dakit», zioen-.

■ **Hamalu zortzimilakoak egin dituzu. Zer gehiago eska diezaiokezu zeure buruari?**